

Eraitsi ala ezer ez?

Pertsonalki, uste dut ni ere poztuko nintzatekeela Iruñeko Erorien Monumentua airean zartatzen ikusiko banu. Hori gauza bat da, eta beste gauza bat, gainerako aukera guztiak, berez eta kategorikoki, txarrak direla baieztatzea. Are, nonbaiten irakurri dudana bezala, sinatu berri den akordioa faxismoari aurre ez egitea dela salatzea.

Iruñeko Erorien Monumentua ez da Auschwitz. Ez da kontzentrazio esparru bat, ez da kartzela bat, ez da epaitegi izandako eraikin bat. Ez da frankismoak bere praktikak garatzeko erabilitako espazio bat, ez. Faxistak —eta haien krimenak— omentzeko eraikitako monumentu bat da. Eta garrantzitsua da azalpena, zeren eta horri helduta ari dira hainbat lagun —eta literal diot *lagun*, kide eta adiskidetzat dauzkadalako asko— lehen kasuetan eraikinaren birmoldatzea posible litzatekeela defendatzen, baina bigarrenetan ez. Alegia, erabil dezakezula kartzela bat han gertatu zena azaltzeko, baina omentze monumentu bat, ez. Eta nahiko nuke niretzako konbentzimendu bera, baina tamalez, ez dut.

Zeren eta halako eraikin bati esanahi berri bat ematerik ez dagoela esatea edozer egiten duzula ere eraikin horrek faxistak omentzen segituko duela esatea da. Bai? Sinbologia ezabatuta, kriptak eraitsita, kupula estalita, faxistak omentzen jarraitu? Bai? Maravillas Lamberto izeneko zentro batek?

Militante antifrankisten etxeak izan dira gutako askorenak. Duintasunez iritsi zaigu borroka horren transmisioa gurasoengandik. Baina, gaur egun, tamalez, belaunaldi horretakoak dira memoriaren mugimenduan dabilzan hamar kideetik bederatzi. Eta, hortaz, zentzuzkoa da pentsatzea, eraikina eraisteko momentuko plazera pasatu eta gero, bizirik jarraituko duela han izan zenaren memoriak. Zer gertatzen da, ordea, gaur Iruñean jaioko den haur horrekin? Zerk bermatuko du hogeitazko urte barru bere hiriaren historia ezagutzea? Agian eraisketak bai, baina interpretazio zentro bat eraikitzeak ere bai, dudarik ez.

Bai, esan dut, poztuko nintzatekeen monumentua eraitsi izan balitz, gustura egingo nukeen topa aitarekin. Baina, gaur-gaurkoz, badakigu horretarako aski adostasunik ez zegoela. Eta *eraitsi ala ezer ez* posizioan pasatzen dugun egun bakoitzeko, egun bat gehiago du eraikin horrek faxistak omentzeko.

Ander Perez Argote, Berria, 2024ko azaroaren 22a

GALDERAK (OHARRA: Parentesi arteko zenbakiak zein lerrotan dagoen adierazten du)

GRAMATIKA

- 1.- Eman testuko adizki hauen aspektua, aldia, pertsona eta modua: (puntu 1): **ikusiko banu** (1), **diot** (7), **erabil dezakezu[la]** (8), **egin nukeen** (20).
- 2.- Berridatzi azpimarratutako esaldi zatia, testuko esanahiari lotuz (puntu 1):
 - **...irakurri dudana bezala**, ... (3)
 - **...eraikitako...** (6)
 - **...adiskidetzat dauzkadalako...** (7)
 - **...monumentua eraitsi izan balitz**, ... (20)
- 3.- Eman testuko hitz hauen kasua eta numeroa, eta zehaztu falta diren numeroak (puntu 1): **gurasoengandik** (15), **kideetik** (16), **memoriak** (17), **hiriaren** (18).

TESTUGINTZA: hiru galdera hauetatik, erantzun bi.

- 4.- Eman testuaren **tesia eta argudioak**. (100 hitz inguru) (2 puntu)
- 5.- Azaldu igorlearen **asmo komunikatiboa eta modalizazioa**. (150 hitz inguru) (2 puntu)
- 6.- **Ulermen zehatza**. Zer esan nahi du autoreak ondoko bi pasarte hauetan? (3-4 lerrotan bakoitza) (2 puntu)
 - "...hainbat lagun —eta literal diot *lagun*, kide eta adiskidetzat dauzkadalako asko—..." (7)
 - "Baina, gaur egun, tamalez, belaunaldi horretakoak dira memoriaren mugimenduan dabilzan hamar kideetik bederatzi." (15-16)

IRUZKIN KRITIKOA

- 7.- Egin ezazu **iruzkin kritikoa**. (180-200 hitz inguru) (3 puntu)